



Andoaingo Udala

KORONAVIRUSAREN KRISIAREN AURREAN, EUSKAL ELKARTASUN SAREA

'Guztion Artean' elkartasun-sareak agindutakoari jarraituz, gaur goizean Gizarte Zerbitzuetako arduraduna eta Andoaingo alkatea Andoaingo Gurutze Gorriarekin eta Caritasekin batzartu dira.

Bilera horretan erabaki da, Gurutze Gorria Andoainen sortutako boluntarioen sarearekin harremanetan jarriko dela haien datuak fitxa batean erregistratzeko eta, horrela, Gurutze Gorriaren behin-behineko boluntario izan daitezten.

Baldintza guztiak betetzen dituzten boluntarioei Gurutze Gorriak emango die Udaltzaingoak edo Ertzaintzak eskatuz gero aurkeztu beharko duten ziurtagiria.

Laguntza behar duten pertsonen eskaerak iristen direnean, honako prozedura jarraituko da:

1. Gurutze Gorria harremanetan jarriko da zerbitzuaren erabiltzailearekin, eta boluntario bat etxera noiz hurbilduko den adieraziko dio.
2. Gurutze Gorriko boluntarioa pertsona horren etxera joango da, eta lehen beharrak asetzeko elikagaien eta botiken zerrenda jasoko du, baita dirua eta osasun txartela ere, hala behar izanez gero.
3. Erosketa egin ondoren, Gurutze Gorriko boluntarioak erabiltzailearen etxera eramango du erositakoa eta bere atean utziko du.

Andoaingo Udalak berriro ere eskerrak eman nahi dizkie une zail hauetan laguntzeko borondatea adierazi duten udalerriko pertsona guztiei, bai eta Andoaingo Gurutze Gorriari eta Andoaingo Caritasi ere.

Ohar hau aprobetxatu nahi dugu gogorarazteko **70 urtetik gorako herritarra baldin bazara eta egoera zaurgarrian baldin bazaude**, sintomarik ez baduzu (sukarra edo arnas sintomak, bereziki eztul lehorra edo arnasa hartzeko zailtasuna), familiaren laguntzarik ez baduzu eta laguntza behar baduzu, **Udaletxeko 943 300 830 telefonora dei dezakezula**, bai eta "Guztion Artean" elkartasun-sareak horretarako jarri dituen telefonoetara ere: **945 222 222** eta **688 662 773**.

Andoaingo, 2020ko martxoaren 20a



Andoaingo Udala

ANTE LA CRISIS DEL CORONAVIRUS, RED DE SOLIDARIDAD VASCA

Siguiendo con lo estipulado por la Red de Solidaridad "Guztion Artean", esta mañana la responsable de Servicios Sociales y la alcaldesa de Andoain se han reunido con la Cruz Roja de Andoain y Caritas de Andoain.

En dicha reunión, se ha establecido que Cruz Roja se va a poner en contacto con la red de personas voluntarias surgidas en Andoain para que registren sus datos en una ficha, de forma que pasen a ser personas voluntarias provisionales de Cruz Roja.

Será Cruz Roja quien entregue a las personas voluntarias que cumplan todos los requisitos el certificado correspondiente a presentar en el caso de que lo solicite la Policía Municipal o la Ertzaintza.

Una vez que lleguen, las solicitudes de qué personas necesitan ayuda, el procedimiento es el siguiente:

1. La Cruz Roja se pondrá en contacto con la persona usuaria del servicio y el indicará cuándo se acercará una persona voluntaria a su domicilio.
2. La persona voluntaria de la Cruz Roja acudirá al domicilio de dicha persona y recogerá la lista de alimentos de primera necesidad y medicamentos, así como el dinero y la tarjeta sanitaria, si fuera necesaria.
3. Realizada la compra, la persona voluntaria de la Cruz Roja le llevará al domicilio, depositándola en la puerta de la persona usuaria.

El Ayuntamiento de Andoain quiere transmitir nuevamente nuestro agradecimiento a todas y cada una de las personas del municipio que han manifestado su voluntad para colaborar en estos difíciles momentos, así como a la Cruz Roja de Andoain y Caritas de Andoain.

Aprovechamos este comunicado para recordar que, **si eres una persona mayor de 70 años o vulnerable, sin síntomas** (febrícula o síntomas respiratorios, especialmente tos seca o dificultad respiratoria), careces de apoyo familiar y necesitas ayuda, **puedes llamar al teléfono del Ayuntamiento 943 300 830** y a los teléfonos que la Red de Solidaridad "Guztion Artean" ha puesto a disposición **945 222 222** y **688 662 773**.

Andoain, 20 de marzo de 2020